



IGEentzako LAGUNTZA  
DOKUMENTUAK:



## Zuzendaritza batzordea. Karguen funtzioak

Zuzendaritza batzordea helburu bera dugun pertsona talde batek osatzen dugu, eta hori gure seme-alaben ikastetxea hobetzea da.

Eraginkortasunez lan egiteko eta guztiak taldean integratu ahal izateko eta integratuta sentitzeko, erantzukizunak banatu behar ditugu.

Garrantzitsua da taldean lan egitea. Lan talde bat bagara, guztiok gara gure zuzendaritza batzordearen asmatze nahiz akatsen erantzule, eta elkarri lagundu behar diogu.

Taldearen barruan guztiok gara berdinak, karguak alde batera utziz, eta soilik ditugun zeregin eta egiten dugun lanaren arabera bereizten gara. Baina kargu bakoitzak zeregin zehatzak ditu estatutuen arabera:

### **PRESIDENTEA**

"Ageriko buru" gisa jokatu eta IGEaren ordezkari izan arren, ez du aparteko boteririk erabakiak hartzeko.

Bere zeregin nagusia taldea koordinatu eta dinamizatzea da.

Ekimenak bultzatzen ditu, eta, lana emateaz gain, besteek lan egitea lortu behar du. .

Bere zereginen ez erretzeko, taldearen laguntza behar du.

Taldeak, beste aldetik, onartu behar du GUZTIEK erantzukizun berdinak ditugula IGEak funtzionatzeko.

IGEaren ordezkaria da; bileretara deitzen du, eta horien buru da; erabakiak betetzen ditu; ordainketak agintzen ditu; eta dirulaguntzen ardura duna da.

### Zenbait batzorderen adibideak:

<b>Kultura eta kirolak</b> Kirol eta kultur jarduerak D Egunak Tailerrak, bi-daiak eta txangoak. Kanpaldiak.	<b>Jantokia eta garraioa</b> Jantokiaren jarraitzea: garbiketa baldintzak, menua, diziplina, jarduerak, e.a. Garraioaren jarraitzea: -Ibilbideak, geltokiak, e.a.	<b>Hezkuntza eta harremanak gurasoekin</b> Hezkuntza jarduerak: -Guraso eskolak, kultur zikloak, hitzaldiak, e.a. -Txangoak, afariak, guraso irakasleen arteko bizikidetzeta, e.a. -Zirkularrak, Batzarre-ra deitu	<b>Harremana hezkuntza elkartearekin</b> Koordinazioa: - Eskola kontseiluarekin. - Gurasoekin. - Proposamenak bildu eta erabakiak zabaldu. - Ikasleekin, ikasle elkartearekin eta ordezkari batzarrearekin elkarlana.
<b>Hezkuntza jarduerak</b> Gelan laguntzeko ekimenak (ikasleekin elkarlanean) - Tailerrak, ikastetxeko baratzea, egunkaria. - Zeharkako ardatzetarako ekimenak (Osasunerako heziketa, ingurunea zaintzeko, bakea eta bizikidetasunerako) - Eskola etekina	<b>Batzorde ekonomiko eta teknikoak</b> - Ekonomia gaiak. -Ikastetxearen egitura eta beharrezko materialak.	<b>Ingurunearekiko harremanak</b> Harremana eta koordinazioa: - AAVV-rekin - Udalarekin - Beste erakunde batzuekin	<b>Batzorde ez iraunkorrak</b> Lan batzordeak edozein gai zehatzarako sor daitezke.

## Lan batzordeak

Lan batzordeak zuzendaritza batzordearen lana eta erantzukizunak banatzeko sortzen dira.

Batzordeak soilik adierazgarriak dira. IGE eta ikastetxe bakoitzaren beharren arabera dira.

IGE batek batzorderik gabe ere funtziona dezake, alor arduradunak izendatuz.

Lan batzorde batzuk iraunkorrak dira, eta beste batzuk, aldiz, arazo zehatz baterako sortzen dira.

Ez du merezi beharrezkoak ez diren batzordeak sortzea; horregatik, kopurua murriztu beharko dugu, zuzendaritza batzorde bakoitzaren behar eta gaitasunei begira.

Hobe da batzorde (edo alor arduradun) gutxi sortzea, asko baino.

Batzorde bakoitzak koordinatzaile edo bozeramaile bat eduki behar du.

Zuzendaritza batzordeak batzorde bakoitzaren norabidea ezarriko du eta batzorde bakoitzak bere jardueren berri emango dio. Jarduerak IGEaren presidentearekin koordinatu behar dira.

Zenbait batzordek euren artean lotura dute, eta koordinatu behar dira. Batzordeetan zuzendaritza batzordearen kide ez diren ikasleen gurasoak sartu ahalko dira, euren esperientziak gehitu eta laguntza emateko; hori interes berezia dauka kultura eta kirol batzordeetan eta familiarik harremanen batzordean (hezkuntzari eta gurasoen eskolei buruz). IGEaren batzordeek eskola kontseiluko batzorde mistoei lotuta egon beharko lirarteke, eginda egotekotan.

Batzordeek inguruko beste IGE batzuekin esperientziak truka eta komuneko edo lankidetzak proiektuak sor ditzakete.

## PRESIDENTEORDEA

Presidenteordeak presidenteari bere lanean laguntzen dio.

Garrantzitsua da presidentearekin koordinatzea eta berekin taldean lan egitea. Presidente ez dagoenean ordezkatu egingo du.

## IDAZKARIA

Idazkaria agiriaren, akten, deialdien,... arduraduna da, baina garrantzitsua da, halaber, antolatze eta koordinatze duen zeregina, presidenteari bat. IGE batzuek idazkariorde bat izendatzen dute, idazkariari lagundu eta, bera ez dagoenean, ordezkatzeko.

## DIRUZAINA

Diruzaina kontu eta aurrekontuaren arduraduna da, baina ondoan zehazten ditugun garrantzi bereko zereginak ere betetzen ditu:

- Baliabideak planifikatu
- Diru sarrera posiblei buruzko ideiak eman
- Presidenteari lagundu gastuen ekonomia kontrolatzen

IGE batzuek diruzainorde bat izendatzen dute, diruzainari lagundu eta, bera ez dagoenean, ordezkatzeko.

## BATZORDEKIDEA

- IGEaren jarduerak eta kudeaketak erabakitzen dituzte, zuzendaritza batzordearen gainerako kideekin bat.
- Erantzukizunak guztion artean banatu behar ditugu, lan alor edo batzordeak sortuz, bakoitzak bere lanarekin lagundu eta gehien gustatzen zaiona egiteko.

Guraso Elkarte batean ideiak eta lan ekimenak dituzten pertsonak azpimarratuko ditugu, ez bakarrik "garrantzi" handiagoko karguak dituzten horiek.